TOLO SALDEA

# 2 milioi euro, hurrengo hiru urteetan Tolosaldeko Turismo Jasangarriaren Planaren barruko 17 proiektu garatzeko

- **Lau ardatz ditu planak: trantsizio berde eta jasangarria, energia eraginkortasunaren hobekuntza, trantsizio digitala eta lehiakortasuna.**
- **Tolosaldea Garatzenek garatu du plana, udalek, sektoreko eragile pribatuek eta herritarrek ere parte-hartu zuten prozesu baten ondotik.**

*Tolosan, 2023ko otsailaren 27a*

Tolosaldeak 2 milioi euroko diru-laguntza jaso du, Europako Next Generation funtsetatik, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak sustatutako Euskadiko Jasangarritasun Turistikoko bigarren Lurralde Planeko proiektuak garatzeko.

Lurralde Plan horren eskualde mailako homonimoa da Tolosaldea Garatzenek osatu duen Tolosaldeko Jasangarritasun Turistikoaren Plana, eta bertan biltzen dira eskualde osoan barrena garatuko diren proiektu turistikoak.

Elkarlana izan da plan honen bide-orria osatzeko giltza, erakunde publiko, sektoreko eragile pribatu eta beste hainbat norbanakoren arteko parte-hartze prozesu batean finkatu baitira proiektu eta ideia nagusiak, 2021ean egindako Tolosaldeko Marketin Plana oinarri izanda.

Helburua zehatza da: Tolosaldea turismo jasangarriko helmuga turistiko gisa indarttzea eta Euskadik zentzu horretan duen posizionamenduan laguntzea. Eskualdeko ondare eta natura baliabideak modu jasangarrian aintzat hartuta egin nahi da hori, eskaintza hori Euskadiko sistema turistikoan hobeto integratzeko, eta modu horretara, turismoa desestazionalizatzen, deskontzentratzen eta errenta turistikoa banatzen laguntzeko.

**Lau lan ildo eta 17 proiektu**

Eskualdearen izaera islatzen duen plana da, proiektu txiki askok osatzen baitute. Iker Urruzola, garapen agentziako lehendakariak azaldu duenez, “herri ekimenei erantzuten diete askok eta Europak lehenetsitako trantsizio berde eta energia eraginkortasunari besteek”.

Hain zuzen, proiektuen aurrekontuaren %35a gutxienez, trantsizio berdea, jasangarritasuna, efizientzia energetikoa edota elektromugikortasuna sustatzen duten ekintzetara bideratzea beharrezkoa zen. Baina, Olatz Peon lehendakariordeak zehaztu duenez, Tolosaldeko planak, “%35a beharrean, aurrekontuaren %48a bideratu du” gisa honetako ekintzetara.

Gauzak horrela, lau lan ildo nagusitara egokitu dira proiektuak: jasangarritasuna, energia eraginkortasuna, trantsizio digitala, eta lehiakortasuna.

Orotara 17 proiektu gauzatuko dira datozen hiru urteotan: besteak beste, mendi eta bizikleta bideen egokitzapena; Fagus-Alkiza museoaren leku aldaketa; Saseta defentsa-sistemari buruzko Interpretazio Zentro baten sorrera Zizurkilen; Hernialde eta Alkiza arteko Kutxidazu Bidea Ixabel ibilbidearen garapena; Txindokiko Itzala eta Trail estazioa hobetzeko ekintzak; edota taloa eta mondejua balioan jartzeko esperientzia gastronomikoen diseinua.

**"Erronka" bat Tolosaldearentzat**

Proiektu hauen garapen eta kudeaketa Tolosaldea Garatzen eta udalentzat "erronka bat" izango dela aitortu du Urruzolak: "Ez ohiko dirulaguntza eta jarduerak direnez, guztion inplikazioa beharrezkoa izango da. Baina orain arte elkarlanean aritzeko erakutsi dugun gaitasunari jarraipena emango zaiola ziur nago".

2026an jarri du begirada Olatz Peonek: "Tolosaldeak eskaintza zabal eta erakargarriagoa izatea lortuko du Euskadiko barnealdera etortzen diren turisten motibazioei hobeto erantzuteko: Gastronomia, Natura eta abentura, eta Kultura. Tolosaldea aukera-gune bihurtu nahi da, bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko eta lan-aukerak sortzeko".

---

# Proiektuak

1. **Ardatza: Trantsizio berde eta jasangarria**
   **Aurrekontua: 338.750 €**

**Fagus-Alkizaren leku aldaketa**
Hernio-Gazumeko Interpretazio Zentroa Alkizako udaletxeko ganbaran dago egun. Alkizako Udalak plazako Erretore Etxea erosi du eta bertan kokatuko da zentro berria, zerbitzu gehiagoren artean. Tresna digitalen bidez ere eskaintza osatu nahi da.

**Pello Zabala gunea**
Aralarko Parke Naturalaren Interpretazioaren atalean sakondu nahi da tresna digitalen bidez, berez guztiontzat irisgarria ez den Arritzagako bailara zoragarria bisitari guztiei gerturatu eta Ierabizkar errotaren bisita aberasteko.

**Biodibertsitatea**
Erosioaren aurkako neurriak hartuko dira, oinezko eta BTT ibilbideetan, naturguneak babesteko. Horrez gain, mendi ibilbideen inguruetan berreskuratu daitezkeen hezeguneak, basoak edo fauna eta floraren habitatak aztertuko dira.

2. **Ardatza: Energia eraginkortasuna**
   **Aurrekontua: 622.000€**

**Bide-sarea**
Gaur egungo bide eta eskaintzaren diagnosia egingo da, eta horiek hobetzeko ekintzak zehaztu: mendi bideen sarea, bide berdeak, BTT ibilbideak, atsedenlekuak…

**Mugikortasun turistikoaren azterketa**
Auto pilaketak ematen diren eremuetan irtenbideak lantzea, autokarabana guneak sortzea, ibilgailu elektrikoen karga guneak jartzea, oinez mugitzeko erraztasunak ematea, bizikleta sistemak, etab. dira azterketa horretan jorratuko diren puntuak, irtenbideak martxan jartzeko.

3. **Ardatza: Trantsizio digitala**
   **Aurrekontua: 246.775€**

**www.tolosaldea.eus**
Eskualdeko web turistikoaren garapenarekin jarraitzea da asmoa, hobekuntza gehiago txertatuz. Online publizitate, euskarri eta ikus-entzunezkoetan ere sakondu nahi da. Errealitate birtuala eta entzute aktiboaren jarraipenerako tresnak ere ezarriko dira.

4. **Ardatza: Lehiakortasuna**
   **Aurrekontua: 772.500€**

**Muskerraren bidea**
Bernardo Atxaga idazlearen mundu literarioan oinarrituta, Asteasun kokaturiko ibilbide hau dinamizatzeko helburuarekin, helburuko publiko ezberdinetara bideratzeko ekintza berriak proposatu nahi dira.

**Saseta Interpretazio Zentroa**
Espainiako Gerra Zibilean Andatza mendilerroan sortutako Saseta defentsa-sistemaren inguruko Interpretazio Zentroa sortu nahi da, Zizurkilgo Plaza Etxeberri eraikinean.

**Larraulgo ekomuseoa**
Eskualdeko landa-ingurunearen azken hamarkadetako eraldaketa du aztergai museoak. Hobekuntzak txertatu nahi dira, esaterako, bisita autogidatua egiteko aukera ezarriz.

**Kutxidazu bidea Ixabel**
1990eko hamarkadan argitaratutako umorezko eleberrian oinarrituta, ibilbidea garatu nahi da Hernialde eta Alkizako lurretan barrena. Tolosaldeak berebiziko garrantzia izan du euskararen irakaspenean, batik bat, landa-eremuko baserriek. Zentzu horretan, euskaldunberrien bizipenetan landa eremuak izan duen papera balioan jarri nahi da.

**Irisgarritasuna eta seinaleztapena**
Eskualdeko baliabide turistikoen inbetarioa osatu nahi da, irisgarritasuna eta seinaleztapena kontutan hartuz. MICE edo aisialdiko segmentuan sar daitezkeenak ere aztertu nahi dira.


Tolosaldea Garatzen
Apatta Industrialdea, 1
20400 Tolosa

+34 943 65 45 01
tolosaldeagaratzen.eus

Bestalde, Tolosako Plaza Zaharrean kokatuta dagoen eskualde mailako turismo bulegoa irisgarriagoa egiteko ekintzak burutu nahi dira. Turismo baliabideen seinaleztapena ere hobetu nahi da, azken finean, hauetara iristeko erraztasunak eman nahi zaizkio bisitariari.

**Larraitz**
Txindokiko Itzala Zuhaitz parkea berritu nahi da, eta Txindokiko Mariren figura indartzeko ekintzak gauzatu. Horrez gain, ondoan kokatuta dagoen Trail estazioko ibilbideak eta harrera-gunea hobetu nahi dira, korrikalariei dutxa, komun eta takila zerbitzua eskainiz.

**Tokiko produktuak**

**Taloa eta mondejua**
Garai bateko erroten funtzionamenduarekin eta artzaintzaren tradizioarekin lotuta, bi produktu horien inguruko xehetasunak ezagutzeko eta ekoizpen moduetara gerturatzeko esperientzia gastronomikoak diseinatu eta sortu nahi dira.

**Orexako produktuak**
Oihan-Txiki Kooperatibaren ustiategia bisitatzeko harrera-zentroa sortu nahi da, eta Orexako elikagaien salmenta, dastatze eta erakusketa gunea jarri nahi dira bertan.

**Adunako sagardoa**
Aduna sagardogintzari lotutako herria da, sagar ekoizle hainbat izateaz gain, bi sagardotegi ere badituelako. Garrantzia hori balioan jarriko duten esperientzia gastronomikoak diseinatu eta sortu nahi dira.

**Tolosako produktuak**
Tolosako gozogintza eta Tolosako Babarruna balioan jarriko duten esperientzia gastronomikoak diseinatu eta sortu nahi dira. Tolosako Azokaren dinamizaziorako bisitariei begirako ekintzak antolatzea ere aurreikusten da.


**Tolosaldea Garatzen**
Apatta Industrialdea, 1
20400 Tolosa

+34 943 65 45 01
tolosaldeagaratzen.eus

TOLO
SALDEA

# 2 millones de euros para desarrollar, en los próximos tres años, 17 proyectos del Plan de Turismo Sostenible

- **El plan se centra en cuatro ejes: transición verde y sostenible, mejora de la eficiencia energética, transición digital y competitividad.**
- **El plan ha sido desarrollado por Tolosaldea Garatzen tras un proceso en el que también participaron ayuntamientos, agentes privados del sector y ciudadanía.**

*Tolosa, 27 de febrero de 2023*

Tolosaldea ha recibido una subvención de 2 millones de euros, procedentes de los fondos europeos Next Generation, para el desarrollo de proyectos del segundo Plan Territorial de Sostenibilidad Turística de Euskadi, promovido por el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco.

El homónimo a nivel comarcal de este Plan Territorial es el Plan de Sostenibilidad Turística de Tolosaldea, que ha elaborado Tolosaldea Garatzen y en el que se recogen los proyectos turísticos que se desarrollarán a lo largo de toda la comarca.

La colaboración ha sido la clave para conformar la hoja de ruta de este Plan, ya que los principales proyectos e ideas se han consolidado en un proceso participativo entre instituciones públicas, agentes privados del sector y otros particulares, en base al Plan de Marketing de Tolosaldea elaborado en 2021.

El objetivo es concreto: reforzar a Tolosaldea como destino turístico de turismo sostenible y contribuir al posicionamiento de Euskadi en este sentido. Se trata de hacerlo desde una consideración sostenible del patrimonio y de los recursos naturales de la comarca, con el fin de mejorar la integración de esta oferta en el sistema turístico de Euskadi, contribuyendo así a la desestacionalización, la desconcentración y la distribución de la renta turística.

## Cuatro líneas de trabajo y 17 proyectos

Es un plan que refleja el carácter de la comarca, ya que está formado por muchos pequeños proyectos. El presidente de la agencia de desarrollo, Iker Urruzola, ha explicado que muchos responden a iniciativas planteadas por los municipios, mientras que otros cumplen los retos sobre la transición verde y eficiencia energética priorizadas por Europa.

De hecho, era necesario destinar al menos el 35% del presupuesto de los proyectos a acciones que promuevan la transición verde, la sostenibilidad, la eficiencia energética o la electromovilidad. Sin embargo, la vicepresidenta, Olatz Peón, ha precisado que el plan de Tolosaldea, en lugar del 35% "ha destinado el 48% del presupuesto a este tipo de acciones".

Así, los proyectos se han adaptado a cuatro grandes líneas de trabajo: sostenibilidad, eficiencia energética, transición digital y competitividad.

En los próximos tres años, se llevarán a cabo un total de 17 proyectos: entre otros, la adaptación de los recorridos de montaña y bicicleta; el cambio de ubicación del museo Fagus-Alkiza; la creación de un Centro de Interpretación sobre el sistema defensivo Saseta en Zizurkil; el desarrollo del recorrido *Kutxidazu Bidea Ixabel* entre Hernialde y Alkiza; acciones para mejorar el parque Txindokiko Itzala y la estación de Trail; o el diseño de experiencias gastronómicas para poner en valor la tradición en torno el talo y el mondeju.

**Un “reto” para Tolosaldea**

Urruzola reconoce que el desarrollo y gestión de estos proyectos supondrá “un reto” para Tolosaldea Garatzen y los ayuntamientos: “Al tratarse de subvenciones y actividades extraordinarias, será necesaria la implicación de todos. Pero estoy seguro de que se va a dar continuidad a la capacidad de colaboración que hemos demostrado hasta ahora”.

Olatz Peón también ha puesto la mira en 2026: “Tolosaldea tendrá una oferta más amplia y atractiva para responder mejor a las motivaciones de los turistas que vienen al interior de Euskadi: Gastronomía, Naturaleza y Aventura, y Cultura. Queremos convertir a Tolosaldea en un espacio de oportunidades, que mejoren la calidad de vida de sus habitantes.

---

# Proyectos

1. **Eje: Transición verde y sostenible**
   **Presupuesto: 338.750 €**

**Cambio de ubicación de Fagus-Alkiza**
El Centro de Interpretación de Hernio-Gazume se encuentra actualmente en el desván del Ayuntamiento de Alkiza. El Ayuntamiento de Alkiza ha adquirido la Casa Rectoral de la plaza donde se ubicará el nuevo centro, junto con más servicios. También se pretende completar la oferta a través de herramientas digitales.

**Pello Zabala gunea**
Se profundizará en el apartado de Interpretación del Parque Natural de Aralar a través de herramientas digitales, para acercar a todo visitante al maravilloso valle de Arritzaga, ya de por sí inaccesible para todo el público, y enriquecer así la visita del molino Ierabizkar.



**Tolosaldea Garatzen**
Apatta Industrialdea, 1
20400 Tolosa

+34 943 65 45 01
tolosaldeagaratzen.eus

**Biodiversidad**
Se adoptarán medidas anti erosión en itinerarios de senderismo y BTT para la protección de espacios naturales. Además, se analizarán los humedales, bosques o hábitats de fauna y flora recuperables en el entorno de los senderos.

2. **Eje: Eficiencia Energética**
   **Presupuesto: 622.000€**

**Red viaria**
Se realizará un diagnóstico de los caminos y la oferta actual y se definirán las acciones para mejorarlos: red de caminos de montaña, vías verdes, itinerarios BTT, áreas recreativas, etc.

**Estudio de movilidad turística**
Trabajar soluciones en las zonas donde se dan aglomeraciones de coches, crear zonas de autocaravanas, colocar puntos de carga de vehículos eléctricos, facilitar la movilidad a pie, sistemas de bicicletas, etc. son algunos de los puntos que se abordarán en este estudio para después poner en marcha soluciones.

3. **Eje: Plan de digitalización**
   **Presupuesto: 246.775€**

**www.tolosaldea.eus**
La idea es continuar con el desarrollo de la web turística incorporando más mejoras. También se pretende profundizar en la publicidad, soportes y audiovisuales on line. También se establecerán la realidad virtual y las herramientas de seguimiento de la escucha activa.

4. **Eje: Competitividad**
   **Presupuesto: 772.500€**

**El camino del lagarto**
Inspirado en el mundo literario del escritor Bernardo Atxaga, y con el objetivo de dinamizar este recorrido situado en Asteasu, se pretende proponer nuevas acciones encaminadas a los diferentes públicos objetivos.

**Centro de Interpretación Saseta**
Se pretende crear, en el edificio Plaza Etxeberri de Zizurkil, un Centro de Interpretación del sistema defensivo Saseta, creado en la sierra de Andatza durante la Guerra Civil Española.

**Ecomuseo de Larraul**
El museo analiza la transformación del medio rural de la comarca en las últimas décadas. Se pretende introducir mejoras, por ejemplo, estableciendo la posibilidad de realizar una visita autoguiada.

**Kutxidazu bidea Ixabel**
Basada en la novela de humor publicada en los años noventa, se pretende desarrollar un recorrido por las tierras de Hernialde y Alkiza. Tolosaldea, y más en concreto los caseríos rurales, han jugado un papel fundamental en la enseñanza del euskera. En este sentido, se pretende poner en valor el papel del medio rural en las vivencias de los euskaldunberris.

**Accesibilidad y señalización**
Se realizará el inventario de los recursos turísticos de la comarca, teniendo en cuenta la accesibilidad y la señalización. También se pretende analizar aquellos que se pueden incluir en los MICE o segmento de ocio. Por otro lado, se pretenden llevar a cabo acciones para hacer más accesible la oficina comarcal de turismo ubicada en la Plaza Zaharra de Tolosa. También se contempla la mejora de la señalización de los recursos turísticos, facilitando al visitante el acceso a los mismos.

**Larraitz**
Se pretende renovar el parque Txindokiko Itzala y llevar a cabo acciones para reforzar la figura de Mari. También se pretende mejorar los recorridos y el punto de acogida de la estación de Trail, situada al lado, ofreciendo a los corredores un servicio de duchas, aseos y taquillas.

**Productos locales**

**Talo y mondeju**
En relación al funcionamiento de los antiguos molinos y la tradición del pastoreo, se pretende diseñar y crear experiencias gastronómicas que permitan conocer los detalles de ambos productos y acercarlos a sus formas de producción.

**Productos de Orexa**
Se trata de crear un centro de acogida para visitar la explotación de la Cooperativa Oihan-Txiki, donde se quiere instalar un espacio de venta, degustación y exposición de alimentos de Orexa.

**Sidra de Aduna**
Aduna es un pueblo ligado a la sidra, ya que además de varios productores de manzana, cuenta con dos sidrerías. Se trata de diseñar y crear experiencias gastronómicas que pongan en valor esta importancia.

**Productos de Tolosa**
Se trata de diseñar y crear experiencias gastronómicas que pongan en valor la repostería de Tolosa y la Alubia de Tolosa. También se prevé organizar acciones de cara a los visitantes para la dinamización del Mercado de Tolosa.

Tolosaldea turismoa garatzen

Tolosaldea Garatzen
Apatta Industrialdea, 1
20400 Tolosa

+34 943 65 45 01
tolosaldeagaratzen.eus